

Negozio eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak definitu behar dira.

Gure enpresan, gure kostuak minimizatzen ahalegindu gara, horregatik, hasiera batean, inbertsio handirik ez egitearren, gure ekipo informatikoa murrizta izango da eta hau, aplikazioa sortzeko eta online klaseak emateko erabiliko dugu. Hala ere, online bidezko klaseetako irakasleak gu bakarrik izango ez garenez, kostu finkoa izango dugu beste irakasleen soldatak ordaindu beharko ditugulako, izan ere, irakasle finkoa izan daitezten, ikasleak ordaintzen duenaz gain beste soldata bat emango diegu. Gainera, informatikan trebeak ez ganerez, informatika enpresa bati ordainduko diogu aplikazioa sortzeko zerbitzua eskaintzeagatik.

Gure aplikazioa Play Storen eta App Storen jarriko dugunez, bertan kontu bat sortzeko 20,6€ ordaindu beharko dugu ondoren aplikazioa zintzilikatzeko.

Bestalde, ikasleek gure aplikazioaren berri izan dezaten, Berria aldizkariari, Gaztea irratitari eta Instagram aplikazioari ordainduko diegu gure aplikazioaren publizitatea egin dezaten.

Azkenik, COVID-19 dela-eta online bidezko klaseak izango direnez, irakasle bakoitzak bere etxetik jardungo du, beraz, honek ez dakar gasturik.